

XEDAPEN OROKORRAK

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILA

3424

135/2025 DEKRETUA, uztailaren 1ekoa, Dekretu hauek aldatzekoa: Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernu sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen Dekretua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren teknologien kudeaketa-eredua arautzen duen Dekretua.

Administrazioa eraberritu eta modernizatzeko konpromiso irmo eta iraunkorrari eutsiz, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoak hainbat ekimen bultzatu ditu erronka garrantzitsu bati erantzuteko, hau da, gizartearekiko harreman mota berrietara moldatu beharrari teknologiaren zein antolaketaren aldetik. Horrela, egon nahi du informazioaren eta komunikazioen teknologien sektorean gertatzen ari diren aldaketa etengabe eta azkarrei ezin hobeto aurre egiteko moduan, eta fidagarritasun, arintasun eta efizientziaz ase nahi ditu zerbitzatzen duen gizartearen eskariak eta beharrianak.

Asmo horrekin arautzen du kudeaketa-eredu berria orain aldatu nahi den dekretua (36/2020 Dekretua, martxoaren 10ekoa, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak kudeatzeko eredua). Dekretu horrek ezarritako ereduaren helburua da informazioaren eta komunikazioen teknologien arloko politika erkide eta bateratua sustatu eta ezartzea, Eusko Jaurlaritzaren estrategia eta helburu orokorrekin koherentea dena eta bat datorrena. Horretarako, antolaketa-mekanismo koordinatuak, efikazak eta jasangarriak ezartzen ditu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiek erabil ditzaten.

Hala eta guztiz ere, 36/2020 Dekretua indarrean jarri zenetik (36/2020 Dekretua, martxoaren 10ekoa, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak kudeatzeko eredua), hobetu daitezkeen zenbait alderdi hauteman dira, eta haixek dira, hain zuzen ere, egungo xedapenaren aldaketarekin inplementatu nahi direnak.

Lehenengo eta behin, sinplifikatu egingo dira IKT zerbitzu errepikarien mandatuak onesteko egin behar diren izapideak, prozedura bat etorriko baita Euskal Autonomia Erkidegoko 2023. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 15/2022 Legean ezarritakoarekin. Horrenbestez, hobetu egingo da EJIE sozietate publikoarekin egin beharreko mandatuak harpidezteko prozesuaren efizientzia, horixe baita Eusko Jaurlaritzaren kudeaketa-organo teknologikoa eta baliabide propioa, IKT zerbitzu eta ondasunak kudeatzeko araubidearen oinarria.

Ildo beretik, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoaren IKTen koordinazioa arindu nahi da, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologietarako Batzorde Estrategikoaren lana erraztuz, oinarritzko elementua baita ereduak behar bezala funtzionatzeko, organo horri baitagokio IKTen Plan Estrategikoa ezartzea, bai eta plana gainbegiratzeko eta haren jarraipena egiteko betekizunak zehaztea ere.

Era berean, aldatutako dekretua lerrokatu egingo da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko datuen gobernantza-estrategiarekin, indarra emanaz estrategia horretan Estrategia Digitalaren Zuzendaritzari ematen zaion zereginari.

Azken batean, indartu egin nahi da egun indarrean dagoen dekretuarekin Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien arloko bateratzeari emandako bultzada, eta arestian aipatutako arauetan jasotako aginduekin jarraitu.

Hori guztia dela eta, dekretu honen xedea da 36/2020 Dekretua aldatzea (36/2020 Dekretua, martxoaren 10ekoa, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia kudeatzeko eredia). Hauek dira aldaketok:

Zazpi eduki sartzea, honela laburbiltzen direnak:

11. artikulua.– IKTen Batzorde Estrategikoaren eginkizunak–, 1. apartatuko k) azpiapartatua.

12. artikulua.– IKTen Batzorde Estrategikoaren osaera–, 3. apartatua.

13. artikulua.– IKTen Batzorde Estrategikoaren funtzionamendu-araubidea–, 5. apartatua.

14. artikuluko 1. apartatuko i) azpiapartatua, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sailak eta erakundeak.

15. artikulua.– IKTen alorrean eskumena duen zuzendaritza–, j), k), l), m), n), o), p), q), r), s), t), u), v), w), x), y), z), aa), bb), cc), dd), ee), ff) eta gg) apartatuak.

18. artikulua.– IKT zerbitzu konbergenteen baterako kudeaketa–, 1. apartatuko e) eta f) azpiapartatuak.

19. artikulua.– IKT zerbitzuen mandatuak– 6., 7. eta 8. apartatuak.

Bederatzi atalen idazkera aldatzea, honela laburbiltzen direnak:

11. artikulua.– IKTen Batzorde Estrategikoaren eginkizunak–, 3. apartatua.

12. artikulua.– IKTen Batzorde Estrategikoaren osaera–, 1. apartatuko b), c) eta d) azpiapartatuak.

13. artikulua.– IKTen Batzorde Estrategikoaren funtzionamendu-araubidea–, 2. apartatua.

15. artikulua.– IKTen arloko zuzendaritza eskuduna–, g) apartatua.

16. artikulua.– IKT zerbitzu errepikariak kudeatzeko araubidea–, 1. apartatua.

17. artikulua.– Errepikariak ez diren IKT zerbitzuak kudeatzeko araubidea–, 1. eta 2. apartatuak.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 6. artikuluko 1. apartatuko e) letra.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 6. artikuluko 5. apartatua.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 20. artikuluko 2. apartatua.

Bi eduki kentzea:

9. artikulua.– Gobernu Kontseilua–, c) apartatua.

18. artikulua.– IKT zerbitzu konbergenteen baterako kudeaketa–, 2. apartatua.

Adierazi behar da, halaber, aurreko aldaketen ondorioz, aldatu egiten dela Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretua.

Horiek horrela, Gobernantza, Administrazio Digitala eta Autogobernuko sailburuak proposatuta, eta Gobernu Kontseiluak 2025eko uztailaren 1ean egindako bileran proposamena aztertu eta onartu ondoren, honako hau

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.— Aldatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia kudeatzeko eredu arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretua, honela:

I. KAPITULUA

GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUAREN SAILAREN EGITURA ORGANIKOA ETA FUNTZIONALA EZARTZEN DUEN URRIAREN 29KO 317/2024 DEKRETUA ALDATZEA.

Lehenengo artikulua.— Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 6. artikulua aldatzea –Zerbitzu Zuzendaritza–.

6. artikuluko 1. apartatuko e) letra aldatzen da. Honela idatzita geratzen da:

«Sailari dagozkion gaietan aholkularitza juridikoko eginkizunak, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoa Antolatzeko ekainaren 2ko 7/2016 Legearen 4. eta 5.3 artikuluetan eta Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoari buruzko apirilaren 25eko 144/2017 Dekretuaren 42. artikuluan ezarritakoaren arabera; izan ere, saileko aholkularitza juridikoa zuzendaritza honi atxikita dago. Halere, Zerbitzu Zuzendaritzaren egiteko hau alde batera utziko da, baldin eta sailean zuzenbide-aholkularitzako zeregin espezifikoak esleituta dituzten beste administrazio-unitate batzuk ezartzen badira, bakoitza bere esparruan, baita IKTen zerbitzu errepikarien bitarteko propioei egindako mandatuen kasuan ere, IKTen arloko zuzendaritza eskudunak hala xedatuz gero. Halaber, saileko Aholkularitza Juridikoak izapidetuko ditu sailburuak ebatzi beharrekoak diren saileko organoek emandako egintzak eta xedapenak ofizioz berrikusteko eta kaltegarri deklaratzeko prozedurak.»

Bigarren artikulua.— Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 6. artikulua aldatzea –Zerbitzu Zuzendaritza–.

6. artikuluko 5. apartatua aldatzen da. Honela idatzita geratzen da:

«Zerbitzu zuzendariari dagokio negozio juridikoak izenpetzeko eskumena, baldin eta negozio juridiko horien bitartez mandatu ematen bazaio erakunderen bati prestazioren bat egiteko, eta erakunde horrek, sektore publikoko kontratazioa arautzen duten arauetan ezarritakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakunde bitarteko propio pertsonalizatuaren izaera badu, salbu eta IKTen arloko eskumena duen zuzendaritzak 36/2020 Dekretuan ezarritakoaren arabera sinatu behar dituen IKT zerbitzuen mandatuetan (36/2020 Dekretua, martxoaren 10ekoa, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia kudeatzeko eredu).»

Hirugarren artikulua.— Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 317/2024 Dekretuaren 20. artikulua aldatzea —Estrategia Digitalaren Zuzendaritza—. 20. artikuluko 2. apartatua aldatzen da. Honela idatzita geratzen da:

«Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien zuzendariari dagokio 36/2020 Dekretuan ezarritakoaren arabera mandatuak sinatzeko eskumena (36/2020 Dekretua, martxoaren 10ekoa, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia kudeatzeko eredua).»

II. KAPITULUA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAN INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIAK KUDEATZEKO EREDUA ARAUTZEN DUEN MARTXOAREN 10EKO 36/2020 DEKRETUA ALDATZEA.

Lehenengo artikulua.— Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia kudeatzeko eredua arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuaren 9. artikulua aldatzea —Gobernu Kontseilua—.

9. artikuluko —Gobernu Kontseilua— c) puntua kentzen da.

Bigarren artikulua.— Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia kudeatzeko eredua arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuaren 11. artikulua aldatzea —IKT Batzorde Estrategikoaren eginkizunak—.

11. artikuluko 1. apartatuari k) azpiapartatua gehitzen zaio, eta 3. apartatua aldatzen da. Honela idatzita geratzen dira:

«11. artikulua.— IKTen Batzorde Estrategikoaren eginkizunak.

IKTen Batzorde Estrategikoak eginkizun hauek ditu:

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren IKTen arloko politika eta estrategia zehazteko laguntza ematea, Gobernu Kontseiluak hala eskatuz gero.

IKTen plan estrategikoaren proposamena onestea.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sail eta erakundeen IKT zerbitzuak sailkatzeko gidalerroak ezartzea, kontuan hartuta zer aukera duten bateratzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren IKT zerbitzuen sailkapena onestea; horrek balio izango du IKTen plan estrategikoan jaso diren bateratze-proiektuak lehenesteko.

«Batera zerbitzu-katalogoa» onestea, bai eta haren berrikuspenak ere, eta aldietako bakoitzean zerbitzu berriak edo aldatu direnak diseinatzeko eta garatzeko zer proiektu behar diren zehaztea.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sail eta erakundeei IKTak hornitzeko izango duten politikaren oinarritzko gidalerroak definitzea IKTak kudeatzeko erudian.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sail eta erakundeei IKTen plan estrategikoaren proposamena prestatzeko prozesuan parte hartzeko oinarri gisa balioko dieten gidalerro orokorrak onartzea.

Nahitaezko irizpena ematea lege-aurreproiektuei eta xedapen orokorretako proiektuei buruz, baldin eta haien bidez arautzen baita nola erabili behar dituen Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak informazioaren eta komunikazioaren teknologiak, edo finkatzen badituzte teknologia horiek erabiltzeko gidalerro politikoak.

Gobernu Kontseiluak definitutako IKTen politika eta estrategia gauzatzeko moduari jarraipena, ebaluazioa eta kontrola egitea; horretaz gain, IKTen plan estrategikoa betetzen ari dela gainbegiratzea, eta IKTen kudeaketa-ereduaren aplikazio-eremu osoan egin beharreko ikuskapenen plangintza egitea.

Esleitzen edo agintzen zaizkion bestelako eginkizunak.

Nahitaezko txostena egitea IKTen arloko zerbitzu eta ikerketa berriak sartzeko, garatzeko eta trukatzeko xedez beste administrazio, erakunde edo enpresa publiko zein pribatu batzuekin egingo diren hitzarmenei buruz.» Hitzarmen horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorretik egingo dira zuzenean, eta estatuko edozein administrazio publikok izenpetu ahal izango ditu.

IKTen Batzorde Estrategikoak, bere ildoak markatzeko, hauek hartu behar ditu kontuan: IKTen strategiako alderdi interesdunak, euren beharrak eta eskakizunak, inporta duten barne- edo kanpo-egoerak, eta espero diren emaitzak lortzeko eta etengabe hobetzeko gaitasunak behar diren arriskuak eta izango diren aukerak.

IKTen Batzorde Estrategikoak, erabaki arrazoitu baten bidez, aldi baterako salbuespenak ezarri ahal izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sail edo erakunde batentzat eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoarentzat, bere eginkizunak betetzean ezarritako erabaki, gidalerro eta politiken aplikazioari dagokionez, IKT zerbitzu errepikariak batera kudeatzeko eta emateko mandatuan sartu beharreko zerbitzuak barne.»

Hirugarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak kudeatzeko eredu arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuaren 12. artikulua aldatzea –IKT Batzorde Estrategikoaren osaera–.

12. artikuluko –IKTen Batzorde Estrategikoaren osaera– 1. apartatuko b, c eta d azpiapartatuak aldatzen dira, eta 3. apartatua gehitzen zaio. Honela idatzita geratzen da:

«12. artikulua.– IKTen Batzorde Estrategikoaren osaera.

1.– IKTen Batzorde Estrategikoa honela osatuko da:

Batzordeburua: IKTen arloko eskumena duen sailburuordetzaren titularra.

Batzordeburuordea: teknologien, informazioaren eta komunikazioaren arloko eskumena duen zuzendaritzaren titularra izango da; hitza eta botoa izango ditu.

Idazkaria: teknologien, informazioaren eta komunikazioaren arloko eskumena duen zuzendaritzako aholkulari juridikoaren lanpostua betetzen duena izango da; hitza izango du, baina botorik ez.

Batzordekideak:

1. Batzordekide bat Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sail bakoitzaren ordezkari; sail bakoitzeko titullarrak izendatuko du.

2. Batzordekide bat, erakunde hauetako bakoitzaren ordezkari: IVAP, Eustat, Lanbide, EITB, Osakidetza, SPRI, Hazi, Euskotren eta ETS; atxikita dauden saileko titularrak izendatuko ditu.

3. Batzordekide bat gehiago, ogasunaren, administrazio elektronikoaren eta segurtasun publikoaren arloetako eskumenak dituzten sailetako bakoitzaren ordezkari, bai eta hezkuntzako eta epaitegietako sare sektorialekoak ere; sail bakoitzeko titularrak izendatuko du.

4. Bi batzordekide, bata EJIE Saren ordezkari eta bestea Itelazpi Saren ordezkari; bakoitzari dagokion Administrazio Kontseiluak izendatuko ditu; bileretan, hitza izango dute, baina botorik ez.

IKTen Batzorde Estrategikoaren kideak izendatzeko, kontuan hartuko da zer-nolako hizkuntza-gaitasuna daukaten Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialetan aritzeko, hizkuntza bat edo bestea erabiliko baitira.

Dagokion sail edo erakundeetako bakoitzak izendatuko du zein izango diren teknologien, informazioaren eta komunikazioaren arloko Batzorde Estrategikoko kideak eta, hala bada, gorkio, haien ordezekoak, zuzendaritza-organoetako titularren gutxieneko karguari edo kargu baliokideari dagozkionak.»

Laugarren artikulua.— Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak kudeatzeko eredu arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuaren 13. artikulua aldatzea —IKTen Batzorde Estrategikoaren funtzionamendu-araubidea—.

13. artikuluko 2. apartatua aldatzen da —IKTen Batzorde Estrategikoaren funtzionamendu-araubidea—, eta 5. apartatuari paragrafo bat gehitzen zaio. Honela idatzita geratzen dira:

«13. artikulua.— IKTen Batzorde Estrategikoaren funtzionamendu-araubidea.

IKTen Batzorde Estrategikoaren barne-funtzionamendurako, erabakiak hartzeari, akordioak formalizatzeari eta dekretu honetan arautu gabeko gai guztiei dagokienez, bete egingo dira Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak kide anitzeko organoetarako xedatutakoa eta batzordeak berak onesten dituen barne-araubidearen arauak.

Urtean bilera bat egingo da gutxienez, kontuan hartuta IKTen Batzorde Estrategikoak egingo duen lehenengo bileran onartutako berariazko funtzionamendu-arauak.

Izendatutako batzordekideak une zehatzen batean ordeztu ahal izango dira; horretarako, aldez aurretik jakinaraziko zaio deialdi bakoitzeko batzordeburuari.

Batzordeburuak IKTen Batzorde Estrategikoaren bilkuretan parte hartzeko gonbita egin ahal izango die IKTen arloan ospe edo esperientzia aitortua duten beste erakunde publiko edo pribatu batzuetako ordezkari. Hitza izango dute, baina botorik ez. Horretarako, funtzionamendu-arau espezifikoak bete beharko dituzte.

Halaber, IKTen Batzorde Estrategikoaren eginkizunak estrategikoak direla ikusita, eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren printzipioa bermatzeko, berdintasunaren arloko adituak ere gonbidatu daitezke batzordearen bileretan parte hartzera.

IKTen Batzorde Estrategikoak hala erabakiz gero, batzorde iraunkorrak, komiteak edo lantaldeak eratu ahal izango dira, haren eginkizunetarako beharrezkoak badira.

Batzorde iraunkor, komite edo lantalde horiek ahalmena izango dute erabakiak, gidalerroak eta politikak garatzeko, baita IKTen Batzorde Estrategikoak esleitzen dien beste edozein zeregin garatzeko ere. Nolanahi ere, IKTen Batzorde Estrategikoari dagokio onartzea 11.1 artikuluko b), c), d), e), f) eta g) puntuetan jasotako eginkizunak.

IKTen arloko zuzendaritza eskudunak bere bitarteko pertsonalak eta materialak jarriko ditu IKTen Batzorde Estrategikoa eratzeke eta funtzionamenduan parte hartzeko.»

Bosgarren artikulua.— Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia kudeatzeko eredia arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuaren 14. artikulua aldatzea —Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sailak eta erakundeak—.

14. artikuluko —Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sail eta erakundeak— 1. apartatuari i) azpiapartatua gehitzen zaio. Honela idatzita geratzen da:

«i) Eguneratuta edukitzea eta IKTen arloko Batzorde Estrategikoari eta IKTen arloko eskumena duen zuzendaritzari jakinaraztea dituzten IKT baliabideen inbentarioa eta erabilitako IKT zerbitzuen zerrenda (bateratzeko duten aukeraren arabera sailkatzeko), bai eta IKTen arloan dituzten beharrian eta igurikimenak ere.»

Seigarren artikulua.— Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia kudeatzeko eredia arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuaren 15. artikulua aldatzea —IKTen arloko zuzendaritza eskuduna—.

15. artikuluko —IKTen alorrean eskumena duen zuzendaritza— g) apartatua aldatzen da, eta j), k), l), m), n), o), p), q), r), s), t), u), v), w), x), y), z), aa), bb), cc), dd), ee), ff) eta gg) apartatuak gehitzen zaizkio. Honela idatzita geratzen da:

«15. artikulua.— IKTen arloko zuzendaritza eskuduna.

IKTen arloko zuzendaritza eskudunari eginkizun hauek dagozkio:

IKTen Batzorde Estrategikoari laguntza eta sostengua ematea.

Gobernu Kontseiluari igorri beharko zaion IKTen Plan Estrategikoaren proposamena prestatzea, IKTen Batzorde Estrategikoak proposamen hori egiteko ezarritako arauak eta epeak betez.

Alderdi interesdunen beharrianak eta igurikimenak biltzea, bai eta IKTen plangintza estrategikorako beharrezkotzat jotzen diren barneko zein kanpoko gaiak ere, eta etengabeko jarraipena eta ebaluazioa egitea; horretarako, arriskuen eta aukeren analisisa ere egingo du, beharrezkoa baita etengabeko lorpenak eta hobekuntzak bermatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sail eta erakundeei eskatzea erabiltzen dituzten IKT zerbitzuen zerrenda, bateratze-aukeraren arabera sailkatzeko.

IKT zerbitzu eta ondasunen estandarizazio-erabaki bat onestea, zeinak bete beharko baititu Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren beharrianak; horretarako, baldintza tekniko uniformeak identifikatuko ditu, eta teknologia- eta zerbitzu-azpiegiturretako inbertsioa arrazionalizatu.

Datuak biltegitratze, kudeatze, balioztatze eta erabiltzeari dagokienez, zer estrategia jarraitu behar den definitzea eta estrategia onestea.

Datuen gobernantzaren estrategia gidatzea eta hedatzea erakundean, eta sistemaren kudeaketa efiziente, etiko eta arduratsua bermatu ahal izateko gidalerroak ezartzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen bitarteko propio pertsonalizatuekin egin beharreko mandatuak sinatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren zerbitzuak informatizatzeko eta digitalizatzeko interes estrategikoa eta lehentasunezkoa duen beste edozein IKT zerbitzutarako, bat etorri IKT plan estrategikoarekin.

Dekretu honen bidez agintzen zaizkion gainerako eginkizunak eta, hala behar izanez gero, esleidi dakizkiokeen gainerakoak.

EAEko sektore publikoan, datuen partekatzea gidatzea eta bultzatzea, horretarako irizpideak erabakita eta erakunde eta sektore desberdinen arteko datuen elkarreragingarritasuna zailtzen duten eragozpen eta oztopoak kenduta, datuak, prozesuak eta erakundeak integrazeko aukerari eragiten badiote, indarrean dagoen legeriaren esparruan.

CDO – Chief Data Officer edo Datuaren zuzendari gisa esleitzen zaizkion gainerakoak.

IKTen arloko eskumena duen zuzendaritzako titularraren ebazpenaren bitartez, mandatuak onestea IKT zerbitzu errepikariak batera kudeatzeko eta emateko, bai eta kontraprestazio ekonomikoak emateko ere; eta aurreikusita dauden sailarteko aurrekontu-programak kudeatzea, eta eskatutako zerbitzuen mailaren jarraipena eta kontrola egitea.

Bitarteko propio pertsonifikatuei mandatuak sinatzea, errepikariak ez diren eta konbergenteak diren IKT zerbitzuak direnean.

Bitarteko propio pertsonifikatuei mandatuak sinatzea, errepikariak eta konbergenteak ez diren IKT zerbitzuak direnean, eta finantzaketa IKTen arloko eskumena duen zuzendaritzatik bertatik datorrenean.

IKT zerbitzu errepikarien mandatuei buruzko txosten juridikoa egiteko ahala, baldin eta aholkularitza juridikoa badago zuzendaritzan bertan.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zerbitzuen eraldaketa digitalerako interes estrategikoa duten proiektu komunak koordinatzea, eta digitalizaziorako interes estrategikoa eta lehentasunezkoa duten proiektu komunak gauzatzea.

IKTak erabiltzeko eta kudeatzeko akordio, arau, estandar eta prozedura orokorren proposamenak egitea.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko datuen administrazioari, segurtasunari eta pribatutasun-bermeari buruzko jarraibide komunak lantzea, indarrean dagoen legeriaren arabera, eta horiek betetzen direla zaintzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko entitateei aholkularitza ematea, beren premiei erantzuteko, bai prozedurak eta zerbitzuak informatizatzeko eta IKTak erabiltzeko orduan, bai eraldaketa digitalerako eta adimen artifizialerako estrategien gainean dituzten zalantzak argitzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren IKTen auditoretzak egitea.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sail eta entitateekin eta Administrazio Publikoaren Euskal Institutuarekin lankidetzan, plan eta programak prestatzea eraldaketa digitalaren, adimen artifizialaren eta IKTen arloan langileak gaitzeko, prestatzeko eta hobetzeko.

Irratia eta telebista hedatzeko zerbitzuen zerbitzu eramailearen kudeaketari buruzkoak, baita zerbitzu horren euskarri diren azpiegiturak administratzeak eta ustiatzeak berekin dakartzaten ahalmenak ere, eta irradi-maiztasunen espektroarekin eta espektro horren gaineko zerbitzuekin lotutakoak.

Informazioaren gizartea sustatzea Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoen eta herritarren artean, zehazki telekomunikazioen azpiegiturekin lotutakoak, bai eta Jaur-laritzak onartu eta dagokion planean ezartzen direnak ere, besteak beste eten digitala murrizteko xedearekin.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren administrazio digitaleko zerbitzuen euskarri diren plataforma teknologikoak definitu, garatu, ezarri eta mantentzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak argitaratutako aplikazio mugikorrek kudeatzea, argitaratzea eta katalogatzea.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko informazio-sistemen (aplikazioak eta aktibo digitalak) eta azpiegitura teknologikoen datu-basea sortzea, mantentzea eta ustiatzea.

Adimen artifizialaren estrategia gidatu eta koordinatzea, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikorako adimen artifizialeko algoritmoen eta sistemen erregistro publikoa egitea eta mantentzea ere.

Datuak biltegitratzeko, kudeatzeko, balioztatzeko eta erabiltzeko estrategia definitzea eta onartzea, herritarrei zerbitzu publikoak hobeto emateko.

Erakundean datuen gobernantzaaren estrategia gidatu eta hedatzea, eta jarraibideak ezartzea sistemaren kudeaketa eraginkor, etiko, arduratsu eta fidagarria bermatzeko.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan datuak partekatzeko prozesua gidatu eta bultzatzea, horretarako irizpideak erabakita, eta erakunde eta sektore desberdinen arteko datuen elkarrengarritasuna zailtzen duten trabak eta oztopoak kenduta, baldin eta datuak, prozesuak eta erakundeak integratzeko aukerari eragiten badiote, betiere indarrean dagoen legeriaren esparruan.

CDO – Chief Data Officer edo Datuaren zuzendari gisa esleitzen zaizkionak.

Cloud estrategia bat gidatu, prestatu, onartu eta hedatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren premiei erantzuteko.

Zerbitzu konbergenteen eremuan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren zibersegurtasunaren eragiketaz arduratzea, mehatxu guztietatik babesteko, haiei erantzuteko, eta haiek detektatzeko, arintzeko eta ezabatzeko tresnak hedatuz, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko azpiegitura teknologikoak, komunikazioak eta lanpostu korporatiboak babesteko.

Zazpigarren artikulua.– Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak kudeatzeko eredia arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuaren 16. artikulua aldatzea –IKT zerbitzu errepikariak kudeatzeko araubidea–.

16. artikuluko 1. apartatua aldatzen da –Errepikariak ez diren IKT zerbitzuak kudeatzeko araubidea–. Honela idatzita geratzen da:

«1.– IKTen arloko eskumena duen zuzendaritzak ebazpen bidez onartuko du IKT zerbitzu errepikariak batera kudeatzeko eta emateko mandatura, bai eta kontraprestazio ekonomikoak ere.

IKT zerbitzu errepikariak batera kudeatzeko eta emateko mandatua luzatu ahal izango da IKTen arloko eskumena duen zuzendaritzako titularren ebazpen baten bidez, baldin eta finantzaketa egokia eta nahikoa badute.

IKTen arloko eskumena duen zuzendaritzako titularren ebazpen bidez, eranskin bat onartu ahal izango zaio IKT zerbitzu errepikariak batera kudeatzeko eta emateko mandatuari, bai eta kontraprestazio ekonomikoei ere.

IKTen arloko eskumena duen zuzendaritzako titularrak egingo du IKT zerbitzu errepikarien mandatuei buruzko txosten juridikoa, baldin eta aholkularitza juridikoa badago zuzendari-tzan bertan.

2.– Urtero, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko erakundeek aurrekontu-proiektu orokorretan sartuko dira IKTen zerbitzu errepikarien baterako kudeaketa eta prestazioa ordaintzeko behar diren zuzkidurak, Administrazio eta sektore publikoko sail bakoitzak hurrengo aurrekontu-ekitaldirako definitu eta lehenetsitako beharrianak oinarritzat hartuta. Euskal Autonomia Erkidegokoaren Aurrekontu Orokorren kasuan, aurrekontuen arloko eskumena duen sailak proposatuta, Gobernu Kontseiluak sailarteko programa batean edo batzuetan sartuko ditu zuzkidura horiek.»

Zortzigarren artikulua.— Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia kudeatzeko eredia arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuaren 17. artikulua aldatzea —Errepikariak ez diren IKT zerbitzuak kudeatzeko araubidea—.

17. artikuluko 1. eta 2. apartatuak aldatzen dira. Honela idatzita geratzen dira:—Errepikariak ez diren IKT zerbitzuak kudeatzeko araubidea—

«17. artikulua.— Errepikariak ez diren IKT zerbitzuak kudeatzeko araubidea.

Errepikariak ez diren baina konbergenteak diren IKT zerbitzuetarako badira, IKTen arloko zuzendari eskudunari dagokio mandatuak sinatzea.

Errepikariak eta konbergenteak ez diren IKT zerbitzuetarako badira, IKTen arloko eskumena duen zuzendaritzako titularri dagokio mandatuak sinatzea, finantzaketa IKTen arloko eskumena duen zuzendaritzatik bertatik datorrenean.

Errepikariak eta konbergenteak ez diren gainerako IKT zerbitzuetarako mandatuak edo kontratuak egiteko, kontuan hartuko da zer dagoen ezarrita IKTen plan estrategikoan, eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sail eta erakundeetako organo eskudunek egin ahal izango dute mandatua edo kontratua.

Hala ere, efikazia dela eta, edo horretarako bitarteko tekniko egokirik ez badaukate, egoki iritziz gero, Administrazio Publikoko organo eskudunek IKTen arloko zuzendaritza eskudunari eskuordetu diezaioke aurreko apartatuan adierazitako prestazioetarako mandatua; baina, aldez aurretik, zuzendaritza horretako zuzendariak onartu beharko du.

Halaber, IKT zerbitzuen kudeaketa bateratuaren esparruko kontratazioa eskuordetu ahal izango diote Administrazio eta Zerbitzu Orokorretako Sailburuordetzari; baina, aldez aurretik, sailburuordetza horretako titularrak onartu beharko du.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko gainerako erakundeek eskatu ahal izango diote IKTen arloko zuzendari eskudunari sina ditzala lehen apartatuan adierazitako prestazioei buruzko mandatuak.

Halaber, IKT zerbitzuen kudeaketa bateratuaren esparruan, eskatu ahal izango dute Administrazioako eta Zerbitzu Orokorretako Sailburuordetzak kontrata ditzala, sailburuordetza horretako titularrak aldeztu aurretik onartuta, eta, onartutakoan, hitzarmenen bitartez artikulatu ahal izango dituzte.»

Bederatzigarren artikulua.— Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia kudeatzeko eredu arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuaren 1. artikulua –IKT zerbitzuen baterako kudeaketa– aldatzea.

18. artikuluko 1. apartatuari e) eta f) azpiapartatuak gehitzen zaizkio, eta 2. apartatua kentzen da. Honela idatzita geratzen dira:

«18. artikulua.— IKT zerbitzu konbergenteen baterako kudeaketa.

IKT zerbitzu konbergenteen kudeaketa bateratua ezartzen da sektore publikoan –azpiegitura teknologiko, komunikazio, lanpostu eta zerbitzu korporatibo bateratuak—. Horretarako, IKT zerbitzu hauek behintzat modu bateratuan kudeatuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikorako, eta Batera zerbitzu-katalogoaren parte izango dira:

Azpiegitura teknologikoak.

Zerbitzarien lagapena eta «housinga».

Hostinga.

Azpiegitura teknologikoen zerbitzuak, hau da, azpiegitura zerbitzu gisa («IaaS»).

Plataforma teknologikoen zerbitzuak, hau da, plataforma zerbitzu gisa («PaaS»).

Jakinarazpenak.

Konektagarritasunaren kudeaketa.

Euskarri espezializatua.

Lanpostua.

Erabiltzaileentzako euskarria.

Postu informatikoaren kudeaketa.

Inprimatzea.

Hornidura informatikoa.

Zerbitzu korporatibo bateratuak.

Lankidetzeta eta komunikazioa.

Identitateen eta sarbideen kudeaketa.

Informazio-sistema korporatiboetako euskarria ematen dieten plataforma teknologikoko zerbitzuak.

Beharrezkoak diren konponbideak osagai teknologiko komunen bidez garatzen laguntzen duten zerbitzuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren segurtasun publikoko jardueretara bideratutako IKT zerbitzu eta ondasunak Batera zerbitzu-katalogoan sartzeko, kontuan hartu

beharko dira Euskadiko Segurtasun Publikoaren Sistema Antolatzeko ekainaren 28ko 15/2012 Legearen 14., 17. eta 18. artikuluetan xedatutakoaren arabera ezarri diren informatikaren eta telekomunikazioen arloko estandarrik.»

Hamargarren artikulua.— Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoan Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia kudeatzeko eredia arautzen duen martxoaren 10eko 36/2020 Dekretuaren 19. artikulua aldatzea –IKT zerbitzuen mandatuak–.

19. artikuluari –IKT zerbitzuen mandatuak– 6. 7. eta 8. apartatuak gehitzen zaizkio. Honela idatzita geratzen da:

«19. artikulua.— IKT zerbitzuen mandatuak.

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa osatzen duten erakundeen bitarteko propio pertsonalizatuei egin beharreko mandatuak –ondasunak eta zerbitzuak eskaintzekoak–, erakundeen estatutuen eta arau aplikagarrien eta dekretu honen arabera egingo dira. Gainera, mandatuetan, hauek zehaztuko dira: mandatuko prestazioak, helburuak eta espero diren emaitzak ez ezik, IKTen arloko zuzendaritza eskudunak onetsitako tarifak aplikatu ostean ateratzen den prezioa ere, nahikotasun ekonomiko-finantzarioaren irizpideei jarraikiz eta mandatuaren xedeko jardueretarako bitarteko propioari eragindako kostu efektiboari erreparatuta.

Mandatuak modu eraginkor batean egiteko, bitarteko propioek hirugarrenetikiko prestazio partzialak kontratatu ahal izango dituzte, sare eta sistemen bateragarritasuna, komunikagarritasuna eta segurtasuna eta informazioaren osotasuna, fidagarritasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko xedez. Ez dira inola ere prestazio partzialtzat hartuko bitarteko propioak beste enpresa batzuei erositakoak, baldin eta hornidura edo zerbitzu osagarri edo instrumentalak badira, hau da, prestazio nagusitik banatutako zati autonomo eta bereizgarriak ez badira, nahiz eta prestazio hori egin ahal izateko behar den prozesuaren parte izan.

Bitarteko propio pertsonalizatuei egindako mandatuak zenbait urtetarako izan daitezke, baldin eta finantzaketa egokia badute behar diren konpromiso-kredituen bidez; nolana ere, urteko aurrekontu-zuzkidurak aldatu ahal izango dira, ekitaldian zehar eman beharreko IKT zerbitzu espezifikoetara egokitzeke.

Illo beretik, kontuan hartuta zer-nolako IKT zerbitzu eta ondasunak eman behar diren, bitarteko propioei egindako mandatuek luzapena aurreikusi ahal izango dute mandatu berriak formalizatu arte, baldin eta finantzaketa egokia eta nahikoa badute.

3.l) artikuluan adierazitako berdintasun-printzipioa betetzeko xedez, mandatuek barnean hartu beharko dituzte hauek sustatzeko klausula batzuk: IKTen arloan emakumeek parte hartzea, informazio-sistemetan genero-ikuspegia sartzeari, eta hizkuntza ez-sexista erabiltzea.

IKTen arloko eskumena duen zuzendaritzak nahitaezko txosten lotesle bat egingo du, bitarteko propioarekin gauzatu aurretik, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sailek eta gainerako erakundeek egingo dituzten IKT zerbitzuen mandatuei buruz, jakiteko ea bat datozen ondasunen eta zerbitzuen estandarizazio-erabakiekin. Txosten hori hamabost egun balioduneko epean eman beharko da, eskaera jasotzen denetik aurrera.

Halaber, administrazio elektronikoaren arloko eskumena duen zuzendaritzak nahitaezko txosten lotesle bat egingo du, bitarteko propioarekin gauzatu aurretik, administrazio-prozedurak kudeatzeko diren informazio-sistemen mandatuei buruz. Txosten hori hamabost egun balioduneko epean eman beharko da, eskaera jasotzen denetik aurrera.

IKTen arloko zuzendaritza eskudunak zainduko du betetzen dela IKT zerbitzu eta ondasunak estandarizatzeko erabakia aurreko paragrafoetan adierazitako mandatueta.

AZKEN XEDAPENA.— Indarrean jartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2025eko uztailaren 1ean.

Lehendakaria,
IMANOL PRADALES GIL.

Gobernantza, Administrazio Digital eta Autogobernuko sailburua,
MARÍA UBARRETXENA CID.